

## MINTZAMENA LANTZEKO AUKERA APARTA

Bilboko Hizkuntza Eskola Ofizialak plataforma digital bat sortu du bere web-orrian ikasleek modu praktikoan, autonomoan eta dohainik mintzamena landu dezaten.

**Hauxe baino ez da egin behar:**

- 1 BETE FORMULARIOA.** Web orrian sartu eta TANDEM bilatu. Aurretik Gmail saioa zabaldu behar da. Ondo legoke honetarako kontu berri bat irekitzea.
- 2 BEGIRATU ZERRENDA ETA AUKERATU kideak mintzapraktikak egiteko.** Zerrendak hizkuntzaka datoz. Beraz, bakoitza berera bakarrik joan daiteke.
- 3 ESKATU AUKERATUTAKOEN HELBIDEA** eskolako arduradunari. Horretarako zerrendaren ezkerretara dagoen IDENTIFIKADOREA bidali behar duzu. (Adi: A23). Hauxe da eskolaren posta helbidea: [tandem@heoibilbao.eus](mailto:tandem@heoibilbao.eus)
- 4 ZEHAZTU LAN-DINAMIKA:** Aukeratutako berbalagunekin trukea egiteko modua finkatu: on-line, aurrez aurrekoa, eguna eta ordua. Baita berbaldiak egiteko dinamika (bakarrizketak, elkarriketak...) ere.
- 5 KOMUNIKATU TALDEKIDEAK** nortzuk zareten Eskolari, zerrendan izkutatzeko. Hauxe da eskolaren posta helbidea: [tandem@heoibilbao.eus](mailto:tandem@heoibilbao.eus)

**OHARRAK:**

- *Plataforma hau irekia da ahalik eta hautagairik gehien izateko*
- *Zalantzarik badaukazu, idatzi helbide honetara: [tandem@heoibilbao.eus](mailto:tandem@heoibilbao.eus)*